

KANALAK:

Kartelak kokatuko ditugu eta aldi berean liburuxkak banatuko dituen pertsona bat egongo da. Donostian paseatzen duen jendeak ikus ditzan. Gure zerbitzua aurkezteko inaugurazio moduko bat egingo dugu eta horretara, udaletxeko eta CAF enpresako zenbait pertsona ezagun etorriko dira eta gure gertukoak etorriko dira. Honen bidez, gure enpresaren izena eta gure produktu eta zerbitzuaren kalitatea zabalduko da.

Irrati zaletuentzat, irratian publizitatea egingo dugu, gure bezeroak helduak ere izango direlako eta hauek irratia entzuten dutenak direlako normalean. Sare sozialak eta Web gunea ere izango ditugu. Instagram gazteentzako, gazteak direlako orokorrean instagram erabiltzen dutenak; Twitterra, Twitterra erabiltzen dutenentzat; Gmail-a jende guztiarentzat, mugikorra duen edozeinek gmail kontua duelako eta Facebook helduentzat, helduak baitira orokorrean Facebook erabiltzaileak. Web gunean, gure jatetxeko menuak, eskaintza bereziak, deskontuak, argazkiak, prezioak eta jatetxean lekua erreserbatzeko aukera egongo dira.

Horrez gain, bidai agentzia batean (Viajes el Corte ingles) eta udaletxeak eskaintzen dituen informazio liburuxken bidez aurkeztuko gara.